

Karmele Esnal Zulaika (1932-2012): andereño Karmele

AZKARATE, Miren
Euskaltzain osoa

Ohituak gaude bizitza poliedroa izaten; beste modu batean esanda, gutako bakoitzaren bizitzak alde asko izaten. Alde bakoitzak ditu bere harreman-sareak, lagunak eta ezagunak, lankideak, eta guk ere alde bakoitzean «aurpegi» jakin bat erakusten dugu, beste aldean ikusten ez dena. Hala ere, badira pertsonak gehienontzat alde bakarrekoak direnak; hain da indartsua alde hori, gainerakoak guztiz estaliak geratzen dira, etxekoentzako izan ezik. Halakoxea zen, esango nuke, Karmele Esnal Zulaika; ezagutu genuen gehien-gehienoi hitz batean definitzeko eskatu, eta bi bider pentsatu beharrik gabe, ANDEREÑO erantzungo genuke. Hain izan zen andereño, Gipuzkoako Foru Aldundiak «bizitza osoko andereño» izendatu zuen hil zenean.

Orion jaio zen Karmele Esnal Zulaika, 1932ko abenduaren 20an eta 2012ko maiatzaren 30ean hil, 79 urte zituela. Zortzi urte betetzean Donostiara etorri zen familiarekin, eta han egin zituen Batxilergoa amaitu arteko ikasketak, Mariaren Lagundia ikastetxean, «San Bartolomen». Gasteizera joan zen ondoren, 1947an, hango Irakasle-eskolara. Handik hiru urtera irakasle-ikasketak amaitu ostean, Donostiara itzuli eta urtebete eman zuen Elbira Zipitriaren ikastolan, haren teknikak ikasten (irakasleen irakaslea, andereñoen andereñoa, horrela definitu zuen Karmele Esnalek Elbira Zipitria). 1953. urtea zen. Handik aurrera, irakaskuntzan eman zituen bizitzako urterik gehienak; bizitza osoa. 1955ean sortu zuen bere ikastola, Donostiako Pedro Egaña kalean; zazpi haur zituen hasiera hartan. Hala kontatu zion Karmele Esnalek berak Ainara Iraetari:

Euskera. 2012, 57, 1-2. 407-419. Bilbo
ISSN 0210-1564

«Elbiraren ikastolan praktketan ari nintzela, haur kopurua izugarri handitu zen eta ume guztiak ez ziren Donostiako Alde Zaharreko lokalean sartzen. Erdialdetik ume asko etortzen zirela ikusi genuen, beraz, Pedro Egaña kalean lokal bat alokatu eta zazpi ikaslerekin hasi nituen klaseak».

Gero, taldea handitu eta 35 ikasle izatera iritsi zenean, Pedro Egañatik Artzain Onaren plazako beste leku batera aldatu zuen ikastola. Handik Juan de Olazabal pasealekura joan zen 1965ean, eta Santo Tomas Lizeoan ikasgela bat alokatu; 9 urte arteko neska-mutilei eskolak emateaz gain, batxilerrako gazteei ere irakasten zien euskara. Azkenik, 13 urte «klandestinitatean» eskolak ematen jardun ondoren, Santo Tomas Lizeoan integratu zen 1969an, ikastetxe hau irakaskuntza-ziklo osoa ematen hasi zenean, Eskolaurrea eta Lehen Hezkuntza barne. Eta han jarraitu zuen, harik eta 1997an jubilatu zen arte.

Honainokoak izan daitezke Karmele Esnal Zulaikaren bizitzari buruzko datuak, datu hotzak. Datu horien atzean, ordea, bizitza emankorra dago, egitasmo bati eskainitako bizitza, irakaskuntzan 42 urte jardutea baino askoz harago doan bizitza. Datu horien atzean, andereño Karmeleren bizitza dago, eta gutako askoren bizitzaren zati garrantzitsu bat ere bai.


Elbira Zipitria, Faustina Karril, Mari Karmen Mitxelena, M^a Dolores Goya, Miren Teresa Aleman... Donostian horiek guztiak; Bizkaian beste batzuk... Talde-lana, gutxi izanik ere, batak besteari erakutsiaz katenbegiak osatuz joan zen taldea. Esan dugu Elbira Zipitriarekin eman zuela ikasturte oso bat Karmelek. Eta gero Karmeleren ondoan ikasi zuten beste batzuek. Gotzon Egiak *Bidegileak* bildumako *Emakumea euskal irakaskuntzan* lanean dioen moduan, «irakasle bakan eta bakartien isilpeko ekinetik sortu ziren gehienetan lehenengo ikastola haiek, emakume edo andereñoen ekinetik hain zuzen. Ordutik hona, katea ez da eten, eta euskal irakaskuntzaren zutaberik irmoena emakumez osatuta dagoela esan daiteke». Baina hasierako garaiez ari nintzen.

Kanikak, eta kaniken bidez batekoak eta hamarrekoak, eta multzoak matematika ikasteko. Txotxak lurtean eserita letrak ikasteko. Abestiak, abesti asko (*Paristik natorren, Eskualdun makila, Basatxoritxu moko luziak,*

Kinkirrinera, Zapi zuria...), olerkiak (*Baziren bi txerri Ttip eta Ttuþ, Behin bazen bele bat, bele bat beltza...*), Don Nemesio Etxaniz kantuak erakus-tera, jaunartzeko prestatzera, Don Diego Lasarekin batera... Santa Teresa joan-etorriak jaunartzeko azken prestaketak egiteko, betiere gurasoren baten ardurapean... Urumea, Donostiatik; Oria, Oriotik; Urola, Zumaitik... Gipuzkoako mendiak, ibaiak, Euskal Herrikoak, lur-muturrak, golkoak... *Martin Txilibitu, Xabierto, Mamutxak...* gure eskolako liburu bakarrak. Txotxak, arkatza, eta arkatz gorri-urdina... gure gelako materialak (klarion puskaren bat izatekotan, agian belaun gainean jartzen genuen arbel txikiren bat...). Horiek guztiak datozkit zurrunbiloan burura andereño Karmele esatean. Eta nire oroitzapen horien atzean ezkututzen den gutzia, oharkabean geureganatu genuena, eta ondoren «jakin» duguna. Gerora jakin dugu nolako ondarea pasatu ziguten ere: abesti eta olerkietan gerraurrekoen ahalegina, *Euskaltzaleak* mugimenduaren ondarea zegoen, eta Iparraldea (Oxobi...). Euskal Herria, iragana eta oraina.

Metodo pedagogiko aurreratuak, Europan zehar irakaskuntza zertan zen jakin, pedagogiari buruzko ikerketa eta gogoetak ezagutu (Piaget, Freinet, Makarenko, Montesori...) eta horien teoria eta ikerketak ikasgelara eramaten saiatu (Egia, 1997: 3).

«Bere eskola oso dinamikoa zen eta oso aktiboa. Matematikak adibidez, era aurrerakoi batean ematen zituen. Garaian hemen erdal ikastetxeetan generalki mutil bati haseratik zenbakiak sartzen zitzaizkion. Elbirarekin ez; lehenez matematikak egungo gauzekin sartzen zituen, matematikaren kontzeptua eta ariketak, saguak, sagarrak eta pilotak edo kanikak batzen eta kentzen egiten zuen. Hau da, lehen-dabizi zen gauza logikoa eta gero eransten zion abstrakzioa eta teoria, zenbakiak eta matematikako ikurrak erantziz. Bere material guztia hori zen; txotxak, pottokak edo kanikak, arkatz gorri eta urdina, dibujoko bloka eta *Xabierto*».



Elbira Zipitriaren metodoez ari zaio Karmele Esnal Xabier Aranbururi, baina berdin berdin esan genezake Karmeleren beraren eta garai hartako andereñoen metodoez. Baliabide material urriak; baliabide eta jakin-min pedagogikoa, ordea, gainezka. Matematikan, inguruko gauza konkretuetatik hasi eta ondoren jo abstrakziora, zenbakietara. Berdin Geografia edo Lutelestian: gertuenetik hasi, inguruan genituen mendi, ibai eta herrietatik. Irakurtzen eta idazten ikasteko ere, gertuenetik hasi, Jose Luis Lizundiari eta Iasmina Gorroñori esan zien bezala, 2011ko abenduaren 22an egin zioten elkarrizketan:

«Hasi ikaskideen izenak ikasten hasten ginen. Lurrean jarrita txotxekin bakoitzak bere izena jartzen zuen. Eta gero aldamenekoarena. Orduan hurrengo lurrean eserita zegoenarena. Horrela ikasten zuten irakurtzen eta idazten. Idazten zutena irakurtzen zuten. Horrela, sei urterekin primeran irakurtzen zuten. Batzuk, bost urterekin ere bai. Gero «konjuntoak» modan ipini ziren, guretzako «multzoak» zirenak».

Nekane Auzmendik (1999) esan bezala, Karmele Esnal ez zen izan Elbira Zipitriaren ondoan ikusi eta ikasitako metodoen jarraitzaile soil:

«Aipatu den bezala, Elbira andereñoarengandik jasotako ereduak kokatzen zen baina Karmelek aurrerago joan nahi zuen. Laster hasi zen bere ikastolako edukientzat materiala biltzen eta bertsio berri batean ematen. Gure kulturarekiko ekarpenak zituzten autoreak irakurri, aztertu, mezua jaso eta haien aplikazioa ikastolara nahiz kalera zabaltzen zuen. Horrela gogora daitezke Joana Bixenta Mogel, Iturrriaga, Urruzuno eta beste hainbat eta hainbat nola aurkeztu, errezi-tatu eta eszenaratzen zituen.

Ikastola hartan, sekulan erabili ez den bezala irakasle honek Azkueren bildumako hainbat ipuin, kanta eta gertakari ikastolara egokitu eta bizia ematen zien, era horretara ikasleei errazago eta atsegina gozatu egiten zitzaizkien eskola».¹

Eta horrela eginez, ondo prestatu ikasleak 9 urte betetzen zituztenean aurrean izango zuten Ingresoko azterketarako:

«Ezagutza mailan ez genuen inongo arazorik. Gure ikasleak oso ondo prestatuak joaten ziren geografian, matematiketan eta abar-rean. Hau askotan esan digute. Neri konkretuki, Marianistetako zuzendariak esan zidan ikastoletako haurrak oso ondo prestatuak joaten zirela, eta bereziki matematiketan. Baina gure kezka hizkuntza zen; ez genuen nahi, hizkuntza aitzakiatzat hartuz, gure umeak onartuak ez izatea. Pentsa ezazu, Ingresoko azterketan eskatzen zuten ortografia, gaztelaniar ortografia, noski, oso zorrotza zela. Dena den, ondo prestatuak joaten ziren eta ez genuen arazo berezirik izaten».

esan zion Mari Karmen Mitxelenak Xabier Aranbururi (1991: 47). Orduan ikasi genuen, oharkabea, euskaldunok askotan ingurukoek baino askoz hobeto egitera behartuak gaudela; hobe dugula hala izatea. Horixe erakutsi zuten ikastolek ere. Beren baliabide-urritasun eta guzti, gai zirela behar adinako maila eta gehiago ere emateko².

¹ Gipuzkoako Foru Diputazioak 1999an Karmele Esnali Abbadia Saria eman zionean eginiko hitzaldia.

² Garai hartako ikastoletatik hasi eta XXI. mendekoetaraino egin den bidearen berri izan nahi duenak, azterketa sakona aurkituko du Euskaltzaindiaren Jagon Sailak argitaratutako lanean: *Ikastolen mugimendua. Dabilen herria. Ikastola-eredua 1960-2010*.

Eta beti gogoan beste batzuen berri izatea, esperientzia-trukea:

«Kataluniara ikastaroak egitera joaten ginen. Eta harrituta gelditzen ziren, guk, hemen, dena euskaraz ematen genuelako. Haiek gaztelaniaz eta katalanez ematen zituzten eskolak. Katalanez hitz egitea ere debekatuta zeukaten nahiz eta pribatuetan egiten zuten. Bietan ikasketak gaztelaniaz egiten zituzten. Eta guk hemen dena euskaraz egiten genuen. Oso harreman onak nituen katalanekin. Rosa Sensat, Marta Mata eta Antonia Canals-ekin oso harreman onak nituen. Ni hara joan eta beraiek hona etortzen ziren. Ipuinak eta konpartitzen genituen».³

Horretan ere ez dugu ezer berririk asmatu azken urteetan. Eta hori guztia lan-baldintza zailetan. Gurasoek ematen zuten dirua zen soldata bakarra; uda parteko eskolarik gabeko hilabeteetan zer gertatzen zen, gurasoen eta andereñoen arteko kontua izango zen. Gizarte Segurantzarik, are gutxiago. Eta erretiro-garaia iritsi zitzaientean, zor zitzaie la uste zutenaren alde borrokatu ziren. Orduan ere Karmele Esnal ibili zen aurre-aurrean. Ez zen batere erraza kotizatu gabeko hasierako urte haiek, klandestinitateko urteak, Gizarte Segurantzaren sartzea. Baina, Jose Luis Lizundiari eta Iasmina Gorroñori esan zien bezala, «emakumeoi buruan perretxiko bat jartzen zaigunean...»

Klandestinitatean, etxe partikularretako geletan, ia baliabiderik gabe, soldata ere zen bezalakoa... Zergatik, orduan, ahaleginari eutsi? Ainara Iraetari (2000) emandako erantzunean argi asko ikusten da zergatik:

«Euskara garai honetan gaixo zegoen eta guk euskara mantentzen lagundu nahi genuen, galdu ez zedin. Horregatik ireki genituen ikastolak, umeei euskaraz ikasteko aukera zabaldu nahi genielako».

Hil baino urtebete lehenago ere gauza bera berresten zuen:

«Lortu nahi genuena euskara zen. Eta Donostiako haur, familia euskaldunei, lehenengo hezkuntza euskaraz ematea. Euskara eta es-

³ Jose Luis Lizundiak eta Iasmina Gorroñok 2011ko abenduaren 22an egin zioten elkarrizketatik hartua.

kola batera jartzea nahi genuen, bederatzi urte arte. Bederatzi urtetik aurrera bakoitza nahi zuen tokira joaten zen lizeoa sortu bitartean».⁴

Euskara mantentzen laguntzeko, gainera, ogibide zuen «andereño» izateaz gain, bestelako hamaika ardura ere izan zituen Karmele Esnalek, azken egunetaraino. Jose Luis Lizundiari eta Iasmina Gorroñori aitortu zenez, euskara ogibide bazuen, euskaratik bizi baldin bazen, obligazioa sentitzen omen zuen euskararen alde zerbait doan egiteko. Horregatik :

– 1960ko hamarkadan, Jarrai antzerki taldean aritu zen, Iñaki Beobide zuzendari zela. Besteren artean, Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria eta Arantxa Gurmendi harekin ibili ziren:

«Jarrai-ri esker, garai batean jende gaztea antzerkia ikustera joaten zen pentsatzen: «hombre, denak ez dira brusarekin joaten». Batzuentzako oso aurrerakoia zen eta on egin zien. Beste batzuentzako ez. Gero, herrietan antzerki taldeak sortzen joan ziren. Mugimendua izan zen. (...) Guk ikasleak eta horrelako jendea bildu nahi genuen, eta gauza desberdinei buruz idatzi. Nik emakumeari buruz idazten nuen, emakumea munduan. Emakumeek munduan zer egiten zuten. Eta inork ez zekien ni nor nintzen. Zeren eta karrikatura batekin agertzen nintzen, sorgin tankeran, sudur luzearekin eta. Puntada batzuk erdaraz ematen nituen. Batzuk pentsatuko zuten: «eta hau nor da baina?» (nik ez nuen esaten)».⁵

– Artikulu asko argitaratu zuen *Zeruko Argia* aldizkarian, «Gazte naiz» atalean, «Maribeltz» ezizenez sinatzen zituen bere lanak. Euskarazko lehen komiki *Panpin* aldizkarian ere lan egin zuen, eta Arrate Irratian lagundu zuen.

– 1965ean Barrian (Araba) antolatu ziren lehenengo euskarazko udalekuetan parte hartu zuen.

– 1991n *Bagera* Donostiako euskaltzaleen elkarte sortzeko bileran parte hartu zuen. *Bagera* elkartearen barruan, *Mintzalagun* izeneko programan aritu zen lanean, euskara ikasten ari zirenei laguntzen azken azkeneraino.

⁴ Jose Luis Lizundiak eta Iasmina Gorroñok egin zioten elkarrizketatik hartua.

⁵ Jose Luis Lizundiak eta Iasmina Gorroñok egin zioten elkarrizketatik hartua.

Euskararen aldeko lanean, ordea, ezinbestekoa izan zuten Karmele Esnalek eta inguruko andereñoek gurasoen konplizitatea. Andereño lanetan jardun zuen bitartean eta gero ere, erretiroa hartu eta sari eta omenaldiak iritsi zitzaizkionean, beti agertu zien bere esker ona gurasoei. Garai zailetan, inolako ofizialtasunik gabe, seme-alabak andereñoen esku uzteko ausardia izan zuten gurasoei. Ez ziren guztiak, nahitaez, maila ekonomiko onekoak. Era guzietako jendea zegoen, –hala oroitzen du Mari Karmen Mitxelenak– baina behar bada, erdi-goï maila batera hurbiltzen ziren gehiago, baina erdi-goï maila jakintzaren aldetik batez ere. Garai hartan, euskal kulturaz eta euskal irakaskuntzaz euskaldun ikasiak, hau da, nolabaiteko kultur maila erdikoa edo goikoa zuten euskaldunak arduratzen ziren. Euskaltzaletasunak, euskal kulturari zioten atxikimenduak elkartu zituen andereñoak eta gurasoak. Ezin hobeki definitzen ditu Iñigo Lamarkak (2011) garai hartan bereganatu zituen balioak:

«**Idealismoa.** Ikastolan ari ginenon gurasoak eta ikastoletako andereñoak idealistak ziren. Euskara salbatu nahi zuten, euskaraz bizi nahi zuten, euskaraz hezi nahi zituzten neska-mutilak. (...) euskararen aldeko berpizkunde mugimendu bat jarri zuten abian zenbait idealistak, eta irakaskuntzaren alorrean ikastolak sortu ziren. (...) Euskararen aldeko idealismoa. Inori kalterik egiten ez ziona, inoren aurka ez zihoana (...) Arrisku handiak asumituz, segurtasunaren eta materialismoaren gainetik, ideia baten alde lan egitea, inori minik egin gabe. Horixe izan zen lehenengo irakasgaia. Gurasoengandik eta andereñoengandik ikasi nuena. Horrekin batera **koherentzia** eta **kontsekuente izatea. Pertsona fina. Zintzoa. Langilea.** Euskarak aspalditik ditu sortuak hitzok (...) Ezaugarri horiek bazituzten gure irakasleek».

Lehen urte haietako egoera aldatu egin zen 1968-69an, «Cartilla de Escolaridad» delakoa, eskolatze-liburua, beharrezko bihurtu zenean. Ordurako Juan de Olazabal pasealekura joana zen Karmele Esnal, 1960-61 ikasturtean lehen pausoak eman zituen Santo Tomas Lizeoaren ondora. Amaituak ziren klandestinitateko urteak, estutasun bat baino gehiago pasarazi zizkienak:

«Un día vino la policía y me preguntó qué hacía yo en ese piso. Le tuve que decir que era soltera, que me gustaban los niños y sacaba a pasear a los de unas amigas. Como hacía mal tiempo, no había podido. Abrió la puerta y no vio ni mesas, ni sillas. Los niños estaban en el suelo y no tenían ni libros ni cuadernos, porque nunca los llevaban por temor a que alguien los viera y nos denunciara. Tan sólo tenían unos palillos, con los que estaban jugando. Con ellos, los niños aprendían a escribir las letras en mayúsculas, juntando palillos. Pero sospecharon algo porque me preguntaron los apellidos para saber si eran de familias abertzales. Les dije apellidos nada conocidos en Donostia y me hicieron una ficha, pero no volvieron más» (...) «Pero los niños se portaban estupendamente. En cuanto sonaba el timbre, ya sabían que tenían esconder las tizas. Aunque también hubo inspectores de Educación que nos ayudaron. Por ejemplo, el que me tocó a mí fue un catalán que había sido castigado en tiempos de la guerra por republicano, así que me trataba algo mejor».⁶

Eta 1969an bat egin zuten Santo Tomas Lizeoak eta andereño Karmele-ren ikastolak. Orduan (eta hurrengo urteetan) sortu ziren maila guztiak eskaintzen zituzten ikastola eta Lizeoak: Eskolaurrea, Lehen Hezkuntza eta garai hartako Batxilergoak (oinarrizkoa eta goi mailakoa). Handik aurrera Santo Tomas Lizeoko irakasle izan zen, beraz, Karmele Esnal (administrari, zuzendari eta idazkari lanetan jardun ere bai), harik eta 1997. urtean erretiratu zen arte. Ordurako, 2.000 ikasle joaten ziren eskolara.

Zenbat ikaslek ez ote zuten izan andereño Karmele Esnal 30 urtetik gorako bigarren ibilbide honetan! Nola gogoratzen ote dute? Ezin jakin guztien iritzia. Baina zerbait aurkituko dugu Santo Tomas Lizeoak 50 urte bete zituenean mende erdiko ibilbidearen berri emateko ondu eta oratu zen liburuan. Iñigo Lamarkak (2011) argi eta garbi aitortzen du nolako eragina izan zuen andereño Karmelek:

«Andereño Karmele Esnalek eragin nabarmena izan zuen nire heziketan. Nortasun eta izaera oso sendoak zituen, eta horrek bere eragiteko ahalmena indartu egiten zuen (...) Zorrotza zen ikasteko aha-

⁶ Maite Redondo, «Las tizas que hablaban euskera», *Deia* 1 de diciembre de 2009

leginak exijitzeko orduan, bai eta pertsonaren garapenean gaitasun eta bertute onenak lantzeari zegokionean ere. «Gehiago egin dezake. Gaitasunik badu, baina ahalegin handiagoa egin behar du». Horrela mintzo zitzairen nire gurasoei eta amonari notak eta klasean egiten nuen lana baloratzen zuenean. Balioak lantzeko orduan garrantzi berezia du umeak gurasoen eta irakasleen **autoritatea errespetatzeak**, eta haiek beraien artean koordinatzeak eta hitz egiteak, umearen irakaskuntzak koherentzia eta irizpide komunak izan ditzan».

Beste batzuek, berriz, bestelako ezaugarriak gorde dituzte oroimenean. Xabier Iriondok, «zigarroa bere azkazal luze gorriekin eusten zuen bitartean» ikusten du andereño Karmele. Lorea Castroviejok ere «zigarroa piztu, eta NOR-NORI-NORK» lotzen ditu Karmele Esnalen izenarekin; eta ez da Lizeoko ikasleen artean bakarra gogoan duena Karmeleren ahalegina ikasleek zuzen ikas zitzaizen euskal aditza eta euskal gramatikaren erregelak.

Erretiroa hartu ostean etorri ziren sari eta omenaldiak. Bizi zen bitartean jaso zuen gizartearen aitortza egindako lanagatik:

- 1998ko otsailean Euskal Idazleen Elkarteak omendu zuen, Jose Antonio Arana Martija, Begoña Bilbao, Andoni Lekuona eta Txomin Peillenekin batera. Ohorezko bazkide izendatu zuen.
- 1999an, Anton Abbadia Saria eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- 2003ko maiatzaren 9an, Eusko Jaurlaritzak frankismo garaiko ikastoletako irakasleentzako laguntzen dekretua aurkeztu zuen. Aukera baliatuz, omenaldia egin zien. Horien artean Karmele Esnal zegoen.
- 2007ko urtarrilaren 28an, Sabino Arana Fundazioak saritu zuen, beste batzuekin batera: frankismo garaiko ikastoletako irakasleak saritu zituen.
- 2009ko abenduan *Argizaiola* saria eman zien Gerediaga Elkarteak, Durangoko Azokan frankismo garaiko andereñoi. Bost emakumek ordezkatu zituzten gainerako guztiak: Karmele Esnal (Gipuzkoa), Izaskun Arrue (Araba), Libe Goñi (Iparralde), Izaskun Gas-teiz (Nafarroa) eta Begoña Aranguren (Bizkaia).

- Urte berean, Gipuzkoako Foru Diputazioak Urrezko Domina eman zien ikastoletako lehen andereñoei; haien artean zen Karmele Esnal ere.
- Euskaltzaindiak ere egin zion aitortza Ohorezko euskaltzain izendatuaz 1998ko apirilaren 24an. Baziren 31 urte euskaltzain urgazle izendatu zuenetik (1967ko abuztuaren 15ean).

Eta azken datu honek beste galdera batera narama. Nolakoa izan zen Karmele Esnalen eta Euskaltzaindiaren arteko harremana? Lehenik eta behin, hasieratik euskara batuaren aldeko hautua egin izana da azpimarratzekoa. Batetik, Akademiak esan zuelako, Euskal Akademia bakarra zelako eta hark emandako erregela eta arauak onartu beharrekoak zirelako. Bestalde, oso garbi zuen Karmele Esnalek eredu batu baten beharra. Bat dator bete-betean Koldo Mitxelenak Arantzazuko txostenean dioenarekin («Haur eta gazteei euskaraz irakasten bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea»):

«Euskara irakasten ari baginen, ez haurrei bakarrik, baizik eta helduei ere bai, zerbait bateratua behar genuen. Liburu batean «h»-ez idazten zelako, eta beste batean ez. Denak elkar ulertzeko eredu behar genuen. Bestela, atera behar zenituen mila ale Gipuzkoarako, bostehun Lapurdirako, etab. Hori horrela, guk argi genuen liburuak euskara batuan ateratzen bagenituen denek ulertuko zutela. Nik hori pentsatzen nuen: denek ulertzeko eran egin behar dugu lan. Arantzazukoak oso hitzaldi ederrak izan ziren, oso politak».

Hortik aurrera, Jose Luis Lizundiari eta Iasmina Gorroñori 2011n esan zienez, ez zen harreman berezirik izan; bakoitzak bere lana egiten zuen: «Guk gure aldetik egiten genuen lan ikastolan. Euskaltzaindiak esaten zuena jarraitu genuen, nik jarraitu nuen, eta kito». Orduan ez omen zegoen lekurik emakumeentzat Euskaltzaindian; garai hartako Euskaltzaindia gizon kuadrilla zen, «pelikula ingelesen eta ikusten den bezala, lord ingelesen tankerakoa». Horretan ere ikusi ahal izan zuen giroa nola aldatu den.

Karmele Esnal hil zenean, Antonio Camposek, urtetan Gipuzkoako Ikastolen Federazioko buru eta Ikastolen Konfederazioko buru ere izandakok idatzitakoa ekarri nahi dut hona, hilberri txosten honen amaiera gisa:

Gaurko irakaskuntzak, irakasleak eta gurasoak nahiz eta gehiago behar dutela esan, asko daukate batzuei esker, zuten guztia eman baitzuten iritsi garen tokira iristeko. Gaurko egoeratik oso zaila egi-ten da orduan izan zena irudikatzea. Euskara inongo baliorik gabe, prestigiorik gabe; irakasle euskaldun urri batzuk bazterretan; materialak, zeuden apurrak, erdaraz; irakaskuntza emateko baimenik ez, espazioak are gutxiago eta abar. Ez dugu ahaztu behar Franco bera bizirik zegoela.

Nik ez dut aipamen berezirik egin nahi Karmelez, bere baitan, biltzen zituen baloreez, bakarrik esango dut hasiera zail haietan Karmele izan zela buru nagusietako bat, Gipuzkoan batez ere. Gure aurrekoek zioten “zelako zura halako ezpala” bada ikusi besterik ez dago bere lanak zelako ondorioak ekarri dituen, Euskal Herrian sortu den mugimendurik garrantzitsuenetariko bat: Ikastolen Mugimendua.

Karmele, bene-benetan, bihotzez, hunkiturik eskerrik asko egin duzun, duzuen guztiagatik... orain goza ezazu, zauden lekuan zaudela, bidelagun izan zenituen Zipitria, Karmele Alzueta eta bestekin. Guzti-guztiak miresgarriak, den-denak maitagarriak, eta ahal baduzu, erakutsi iezaiezu gaurko irakasleei, gurasoei eta ikasleei sobera zenuten barne-indarraren, etorkizuna irabazteko zenuten grinaren iturburua, iturri zaharretik edaten duen urarena, etengabe berritzen denarena. Euskarak eskola irabazi baitu; ez, oster, oraindik etorkizuna.

Erreferentziak

ARANBURU, XABIER (1991): *Hezkuntzaren historia Euskal Herrian, ikastola : Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak, ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean*, Euskomedia. Cuadernos de Sección 4. (1991), p. 9-74 (<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/ikas/04/04009074.pdf>)

AUZMENDI, NEKANE (1999): *Hitzaldia* (<http://www.gipuzkoaeuskara.net/jarduerak/abbadia/esnal/auzmendi>)

CAMPOS, ANTONIO (2012): «Karmele Esnal Oroituz», *Berria* 2012-06-01 (http://paperekoa.berria.info/iritzia/2012-06-01/006/002/karmele_esnal_oroituz.htm)

CASTROVIEJO, LOREA (2011): «Zer da Nor? Ariketa: zenbakiak eta letrak erlazionatu», *Santo Tomas Lizeoa*, 1960-61 / 2010/11, Donostia: Santo Tomas Lizeoa, 84.

EGIA, GOTZON (1997): *Emakumea euskal irakaskuntzan (1922-1975)*, Eusko Jaur-larritza, Hizkuntza Politikarako Sailordetza.

EUSKALTZAINDIA (2010): *Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola-eredua 1960-2010*, Jagon Saila, Bilbo: Euskaltzaindia.

IRAETA, AINARA (2000): «Donostiako Ikastolen sorrera», *Euskonews & Media* 67. zk. (2000/2/18-25), (<http://www.euskonews.com/0067zbk/gaia6704eu.html>)

IRIONDO, XABIER (2011): «Lizeokoa da!» *Santo Tomas Lizeoa*, 1960-61 / 2010/11, Donostia: Santo Tomas Lizeoa, 79-80.

LAMARKA, IÑIGO (2011): «Lizeoa eta balioak», *Santo Tomas Lizeoa*, 1960-61 / 2010/11, Donostia: Santo Tomas Lizeoa, 151-155.

REDONDO, MAITE (2009): «Las tizas que hablaban euskera» *Deia* martes, 1 de diciembre de 2009 (<http://www.deia.com/2009/12/01/ocio-y-cultura/cultura/las-tizas-que-hablaban-euskera>)